

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 187/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Baiestea 2020-2021erako jasangarritasun energetikorako laguntza lerroari lotuta Zalduondoko Udalak egindako aurretiazko errekerimendua**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 139/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zen energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren 2020-2021erako deialdia (2020ko martxoaren 13ko —ostirala— ALHAO, 30. zk.).

Zalduondoko Udalak laguntza eskaera aurkeztu zuen Zalduondoko Udalean energia kontsumoa kontrolatu eta optimizatzeko (2. fasea), 2020ko apirilaren 22ko 12:24an, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoko Komunaren bitartez (erregistro zenbakia: 202090000017751); eskaera hori 2020ko apirilaren 22ko 14:33an sartu zen Ingurumeneko Erregistro Orokorrean. Aurkeztutako aurrekontua 3.815,00 euro izan zen, 2020an (ehuneko 20) eta 2021ean (ehuneko 80) gauzatzekoa, eta horretarako 2.861,25 euroko dirulaguntza eskatu zuen.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 13ko 475/2020 Erabakiaren bidez, onespina eman zitzaion 2020-2021erako energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren esleipenari; hartan, ezetsi egin zen errekerimendu-egileak aurkeztutako dirulaguntza eskaera, ez zuelako eskaera aurkeztu Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan ezarritako prozeduraren bidez (“Eskaera ez du egoitza elektronikokoaren bidez aurkeztu”).

Aurreko puntuan adierazitako erabakiaren aurka, Zalduondoko Udalak administrazioarekiko auzietako jurisdikzio bidearen aurreko errekerimendua aurkeztu zuen, zeina 2020ko azaroaren 27an sartu baitzen AFaren Erregistro Elektronikoko Komunean, eta bertan eskatu zuen balio gabetu zedila Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 475/2020 Erabakia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 47.1 a) eta/edo e) artikuluan edo, hala badagokio, 48.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, azaldutakoari jarraituz, eta jarduketak prozeduraren une egokira eraman zitezela.

2021eko martxoaren 3an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak txosten bat egin zuen, eta han zehaztu ziren honako hauek, errekerimendua egin duenak aurkeztutako dirulaguntza eskaerari buruzkoak: a) AFaren Erregistro Elektronikoko Komunean noiz sartu zen; b) Ingurumeneko Erregistro Orokorrean noiz sartu zen; c) aurkeztutzat jo izan balitz zer puntuazio lortuko zukeen; eta d) zer zenbateko emango zitzaion, eman behar izatekotan.

Martxoaren 4an, Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txosten juridiko bat eman zuen (txosten horretan oinarritzen da, aipamena eginez, ebazpen honen ondorioa), zeinean ondorioztatu baitzen interesdunari errekerimendua egiteko betebeharra desagertu egiten dela baldin eskaera hura aurkezteko epeaz kanpo iristen bada materialki administrazio organo eskudunera, ordurako organo horrek ezingo bailioke juridikoki eskatu interesdunari eskaera ezarritako bitartekoaren bidez aurkezteko, aurkezpen hori egiteko epea lehenagotik iraungita egongo litzatekeelako; eta hori ondorioztatzen da, aztergai diren manuen aplikazio eta interpretazio bateratu eta teleologikoa abiapuntutzat hartuta [energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2020-2021erako deialdia onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 139/2020 Erabakiaren xedapen zatiko bosgarren, seigarren eta bederatzigarren apartatuak (ALHAO, 30. zk., 2020ko martxoaren 13koa, ostirala); Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 1. eta 5. apartatuak (BOE, 276. zk., 2003/11/18koa); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen

16.8 eta 68. artikulua eta azken xedapenetatik laugarrena; Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Araubide Juridikoaren Sailburuordetzak egindako txosten hauek: "Opini3n legal en relacion a la aplicaci3n del art3culo 68.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Com3n de las Administraciones P3blicas" (76/2017 LGAKZ-LI) eta "Solicitud de aclaracion sobre la opinion legal (76/2017 LGAKZ-LI) en relacion a la aplicaci3n del art3culo 68.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Com3n de las Administraciones P3blicas" (114/2019 LGAKZ-LI); eta Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salako 2. atalak emandako urriaren 8ko 486/2019 Epaia zuzenbideko bigarren oinarrian jasotako doktrina (JEO: 5399/2019 GAL JANE - ECLI: ES: GALJAN: 2019:5399 – CENDOJeko id.: 15030330022019100486); errepikatu egiten da 2019ko irailaren 20ko Epaia, sala eta atal berberak emana, gai beraren inguruan (4530/2017 zenbakiko prozedura arrunta).

Kontuan izanik dirulaguntza eskaerak aurkezteko azken eguna 2020ko uztailaren 1a izan zela eta Zalduondoko Udalak aurkeztutako dirulaguntza eskaera apirilaren 22an sartu zela Ingurumeneko Erregistro Orokorrean, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak udal horrek denbora nahikoa izango zuela eskaera garaiz eta forma egokian zuzentzeko eta, beraz, eskaera dagozkion baldintzetan baloratu behar da.

Balorazio Mahaiak aztertu du Zalduondoko Udalak aurkeztutako eskaera, eta puntuazio bat eman dio, Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuak onetsi eta Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9ko 23/2019 Foru Dekretuak aldatu zuen zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera. Eskaerak mota bakoitzean izan duten balorazio orokorraren arabera ordenatzen dira, eta emandako puntuazioari erreparatuta esleitzen dira, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte.

2021ean 107.135,99 euroko dirulaguntzak eman dira, eta 42.864,01 euroko saldoa geratu da emateke.

Zalduondoko Udalaren eskaera iristen da dirulaguntza mota bakoitzerako eskatutako gutxieneko puntuaziora: 28 puntu, 1 motarako.

Ikusita Zalduondoko Udalak 3.815,00 euroko aurrekontua eskatu duela, eta 1 jarduketa motakoa denez, gehieneko dirulaguntzaren ehuneko 75 dagokio, hau da, 2.861,25 euro.

Horrenbestez, badagoenez argudiorik ondorioztatzeko Zalduondoko Udalari errekerimendua egin behar zitzaiola dirulaguntza eskaera deialdian ezarritako moduan aurkez zezan, alegia, AFAREN Egoitza Elektronikoaren bidez, baietsi egin behar da Zalduondoko Udalak egindako aurretiazko errekerimendua eta, ondorioz, eskatutako dirulaguntza eman behar zaio.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Bakarra. Baiestea Zalduondoko Udalak egindako aurretiazko errekerimendua, eta ematea dagokion dirulaguntza, hots, 2.861,25 euro. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuko gastuen egoerako "1.60205.6400.7629002 Efizientzia eta kudeaketa energetikoa" partidaren kontura esleituko da (dok. erref.: 105-745/21.1.21), eta epe hauek ezartzen dira:

1. Onetsitako jarduketei dagozkien gastuak gauzatzeko gehieneko epea: 2021eko uztailaren 9a.
2. Gastuak ordaindu ahal izateko eskatutako agiriak aurkezteko epea: 2021eko uztailaren 16a.

Ebazpen honek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 44. artikuluan jasotako eskatutako aurretiazko errekerimendua ebazten du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo

egunetik aurrera. Nolanahi ere, egokitzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA**